

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

- **Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Gure bezeroak app-an dena argi edukitzea eta gure app-a baliagarria izatea beraietzat; lehenengoa egiteko programatzaile bat kontratatuko dugu gure app-a egiteko eta guk lagunduta ulergarria eta erabilera errazarekin egingo dugu.

Gure app-a baliagarria izateko hainbat funtzio ezberdinak izango ditu: programatu ditzakezu hortzak garbitzeko ordu zehatzak eta berak gogoraraziko dizu ordu horretan, garbiketei buruzko informazioa eta bideo tutorialak izango ditu, tratamendu pertsonalizatuak (gaixotasunen arabera, ortodontziaren arabera...) izateko aukera izango du, odontologoaren zitak gogorarazteko aukera, kezkak galdetzeko email-a izango du, gurekin zuzenean komunikatuko diena...